

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 19/2020 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onestea Kontseiluaren azaroaren 24ko 792/2009 Erabakiaren bidez onetsitako Zuiako udalerriko balioen txosteneko balorazio irizpideak aplikatzea ondasun higiezin gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketari buruzko Kontseiluaren azaroaren 26ko 750/2019 Erabakiaren bidez sartutako lurzoruari

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 750/2019 erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen ondasun higiezin gaineko zergari lotutako Zuiako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketa, zeina arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa eta onetsitako zenbait garapen plan direla eta eguneraketak egiteko gauzatu baitzen.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 24ko 792/2009 Erabakiak behin betiko onartu zuen Zuiako udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari lotutako lurzoruaren eta hiri erai-kinen balioen txostena.

Horrenbestez, beharrezkoa da 750/2019 Erabakian jasotakoak direla eta eragindako lurzatiei aipatutako udalerrian indarrean dagoen balioen txostenean (792/2009 Erabakiak onetsia) jasotako irizpide berberak aplikatzea orain.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau hartu du

ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 24ko 792/2009 Erabakiaren bidez onetsitako Zuiako udalerriko balioen txostenean jasotzen diren zerga zonak aplikatzea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 750/2019 Erabakiaren bidez Zuiako udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketa onestearen ondorioz erantsitako hiri lurzoruari.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta Zuiako Udalari dagokio haren berri ematea, kasuan kasuko ediktuak jarrita.

Hirugarrena. Erabaki honen ondorioz ematen diren egintzak interesdunei jakinaraziko zaizkie Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak, hiri ondasunen katastro balioak berraztertzeko eta aldatzeko prozedura arautzen duenak, 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA